



Estem amb vosaltres

ELKARTASUNA VALENTZIAREKIN





DANARI ERANTZUTEKO ANTOLATUTAKO ELKARTASUNA

Valentziak bizi duen krisiaren aurrean, elkartasun-erantzun espontaneoak sortu da.

Euskadi beti da gizarte solidarioa, baita orain ere, eta bere erakundeak ere solidarioak dira.

Baina elkartasunak egokia eta eraginkorra izan behar du, eta, horretarako, ezinbestekoa da elkartasun antolatua izatea, eta mantentzea.

Tokian bertan jarduten ari diren instituzio eta erakundeek esaten digutenari erreparatu behar diogu.

Caritas, Gurutze Gorria, DYA edo GBGE esperientziadun erakundeak dira, eta laguntzak antolatzen eta banatzen laguntzen ari dira.

Oraindik ere, premia nagusia erakunde horiek emandako kontuen bidez dirua bidaltzea da.

Aurrerago beste laguntza batzuk beharko dira, hondamendiaren eragina luzatu egingo baita.

ZER EGIN?

- Epe ertain eta luzerako beharren bilakaeren berri jakitea
- Egoera hauei erantzuteko gai diren eta eragindako eremuetan presentzia duten erakundeei dohaintza ekonomikoak egitea
- Egoera honetan laguntzen duten euskal erakundeetan boluntario egitea

¿QUÉ EVITAR?

- Gauzako dohaintzak egitea
- Norbere kabuz jardutea, larrialdietan eta ekintza humanitarioan espezializatutako erakundeekin harremanetan jarri gabe
- Kaltetutako eremuetara joatea

Gogoratu!

Elkartasunak eraginkorra eta denboran jarraitua izan behar du.

LEKUKOTASUNAK

1. lekukotasuna:

“Astebete Paiportan, hilabete bat iruditu zitzaidan..., hainbeste bizi, sentitu eta eginda! Dena ematera! Laguntzera joan nintzen, beste asko bezala, eta bertan zegoen erakundearekin bat egin nuen, banaketa-puntuak antolatzen eta nabe nagusia abian jartzen... Oso aberasgarria izan da inondik inora eza-gutzen ez nuen baina familia bat ginela sentiarazten zidan jendearekin hain gustura lan egitea, denok batera, bakoitza bere estiloarekin, bere funtzioarekin... inurriak elkarlanean.... Gauzak ondo eta zentzuz eginda..., argi eta garbi markatu nauen unea izan da. ”


2. lekukotasuna:

“Koordinazioaren garrantzia larrialdi batean. GBGEk kudeatutako nabean ikasi dut. Beti izan naiz boluntario independentea. Idomenin (Grezian), Türkian eta Marokon izan nintzen. Ez nuen ulertu koordinatuta egotearen garrantzia DANAREN krisira arte. ”


3. lekukotasuna:

“Hau da dudan lehenengo boluntariotza-esperientzia, eta oso pozik nago hona, Paiportara, etorri izanagatik. Diferentzia markatzen dugula, eta ongi, zintzotasunez eta gorputz eta arima lan egiten dela sentitzen dut. Lanean aritu diren guztien giza kalitatearekin geratzen naiz, eta Armadarekin, udalarekin eta bertako bizilagunekin egunerokotasunean egindako elkarlanarekin. Harrigarria da zenbat lortu den guztion laguntzarekin. Oraindik lan asko dago egiteko, baina egiten dena motibatzailea da. Hemen astebetean ikasten da kanpoan urtebetean ikasten dena. Ziur nago honen parte izateko pribilegioa izan dugun guztiok egunen batean istorio hauek bilobei kontatuko dizkiegula. Hondamendi ikaragarria izan da, eta luze joko du, baina honek itxaropena ematen dit, eta erakusten dit gizakiok edozer gauza gainditu dezakegula, eta denon laguntzaz Valentzia suspertuko dela eta, erresilientziaren eta, gertatzen dena gertatzen dela ere, aurrera egiteko erabakitásunaren eredu inspiratzailea bihurtuko dela. ”

BIDEOAK



[Caritas Valencia](#)



[GBGE](#)



Valentzian ere badauden euskal erakundeekin lankidetzan jarduteko

	HARREMANA (tlf., emaila)	KONTUA
CARITAS	944020077- kolabora@caritasbi.org	ES82 2095 0000 71 3830633699 BIZUM: 33514*
GURUTZE GORRIA	900104971- paisvasco@cruzroja.es	ES44 0049 0001 5321 1002 2225 BIZUM: 33512
GBGE	635750581 / 674041438 elkarteagbge@gmail.com	ES46 0182 2738 6802 0162 1936 BIZUM: 10562

Zure dohaintzaren ziurtagiria lortzeko, jarri harremanetan dohaintza egin diozun erakundearekin, emandako mezu elektronikoen bidez.

Elikagaiak kontserbatzeko eta erabilera sozialerako eramateko

- **ARABAKO ELIKAGAIEN BANKUA**
Uzbina kalea 24 – 5. pabiloia
01015 VITORIA-GASTEIZ. 945 213 233
- **BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUA**
Cervantes etorbidea 49 – 6/7 beheko modulua
48970 BASAURI. 944499258
- **GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA**
Ugaldetxo industrialdea – Zuaznabar kalea 73
20180 OIARTZUN. 943 493796

Jaso dituen erakundeak eramaten ditu elikagaiak, eta bankuek horien kontserbazioa eta erabilera soziala ziurtatzen dute